



Arartekoaren 2014S-317-14 ebazpena, 2014ko maiatzaren 5koa, Oiola urtegiko uren ingurumen-kalitateari buruzkoa. Horren bidez, Osasun Sailari eta URA Uraren Euskal Agentziari iradokitzen zaie edateko ura hartzeko erabilitako uren kalitatea kontrolatzeko prozedura bat ezartzeko, 2000/60/EE Zuzentarauko 7.2. artikuluan jasotako betekizunei jarraiki.

Aurrekariak

- 1. 2013-2014 kanpaina Oiola urtegiko urak kutsatuta egoteagatik kexa.** Barakaldoko Ezpitsua Plataforma Ekologistak, 2014ko otsailean, Oiologo urtegiko (Bizkaia) uren ingurumen-kalitateari eragiten dion beste kutsadura gorabehera baten berri eman zigun. Urtegi hori Barakaldoko biztanleria edateko urez hornitzeko sarerako erabiltzen da.

Jasotako erreklamazioan hau azaltzen da: URA Uraren Euskal Agentziak egindako 2013-2014 aldiko jarraipen-kanpaina, urtegiko uren kalitatea zaintzeko sareak hexaclorociclohexano (HCH) plagizida aurkitu zuen Angela iturrian kokatutako laginketa-puntuak (OIO-ESC 1). Iturri horrek La Gorrika errekan isurtzen ditu Irak, eta era berean, La Gorriga errekan Oiola urtegian, Analitika batzuetan hautemandako balio parametrikak ikusita, plataformak planteatu du substantzia arriskutsu eta lehentasunezko horren kutsadura-arazoak bere horretan jarraitzen duela eta HCH duten ur kutsatuek Oiola urtegiara isurtzen jarraitzen dutela oraindik. 2013ko azaroaren 8an (30 ng/l) eta 2014ko urtarrilaren 28an (26 ng/l) egindako analitikak aipatzen dira, besteak beste.

Kexa-idatzian, plataformak aipatu zuen hainbat idatzi aurkeztu zituela, URA Uraren Euskal Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aurrean kutsadura-egoera hori salatuz. Idatzi horietan 2008. urtean hasi zen kutsaduragertaeratik aurrera ordura arte jarraitzen duten ziurgabetasunak jasotzen ditu. Plataformaren ustez, gizakien osasunerako arriskuak bere horretan jarraitzen du gaur egun, ur hori gizakiek kontsumitzeko erabiltzen baita, nahiz eta HCHak urtegiaren sartzan eta sedimentuan eta biotan jalkitzen jarraitzen duen. Hori dela eta, eskatzen du Oiola urtegiak ur-hornidurarako sistemarekin duen lotura etetea. Halaber, planteatzen du HCH plagizidaren fokuen jatorria zein den aztertzeko neurriak hartzea, kutsadura-fokuak eta urtegiak aldian-aldian herrestatzeagatik jasotzen jarraitzen duen kutsadura erremediatzeko plan bat egitea. Horretarako, URA Uraren Euskal Agentziari berriz eskatu diote sedimentuaren eta biotaren analitika bat egiteko 2009 urtean analisiak egin ziren urtegiko puntuetan. Gauzak horrela, beharrezkotzat jotzen dute Oiola



urtegiaren jarraipen-batzordea deitzea, eta batzorde horretan UPV/EHUko lan-taldearen parte-hartzea sustatzea. Lan-talde horrek hainbat azterketa egin zituen La Gorriga errekaaren arroaren eta urtegiko HCH plagizidaren kutsaduraren arteko harremanari buruz.

Laburbilduz, plataformak Arartekora jo du, gai horrekin zerikusia duten administrazioek beharrezko neurriak hartzen jarraitzea ezinbestekoa dela eskatzeko, Oiola urtegiko uretan gertatzen ari diren kutsadura-gertaerak konpon ditzaten. Plataforma honen nahia da urtegia edateko ura hartzeko erabil dezatela eragozte, urtegiara HCH plagizida ez herrestatzea lortu, sedimentuan eta biotan zer-nolako bilakaera izan duen ebaluatu, eta denboraldi jakin batean ur-masa hori egoera on jarraituan mantendu arte behintzat.

2. **URA Uraren Euskal Agentziari eta Eusko Jaurlaritzari informazioa eskatzea, edateko uraren ekoizpenerako urei eskatutako uren kalitatearen irizpideei buruz.** Erreklamazio hori izapidetzea onartu ondoren, bi administrazioetara zuzendu gara, Oiola urtegiko uren ingurumen-kalitatea azaltzeko. Ur horiek Barakaldoko biztanleriak kontsumitzeko ura ekoizteko erabiltzen dira.

Baldintza horietan, URA Uraren Euskal Agentziari txosten bat eskatu diogu edateko uraren ekoizpenerako urei eskatutako ingurumen-kalitatearen irizpideei buruz, 2000/60/EE Zuzentarauaren, 2000ko urriaren 23koaren, 7. artikuluen baldintzetan –Zuzentarau horri Uraren Esparruko Zuzentaraua ere esaten zaio–, uretan, sedimentuan eta biotan dagoen HCH plagizidaren metatzeari dagokionez. Kasu honetan, informazioa eskatu genuen, Uraren Esparruko Zuzentarauko irizpideekin bat, Oiola urtegiko urek 60/2011 Errege Dekretuan jasotako ingurumen-kalitateko arauak betetzen dituzten jakiteko (60/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, uren politikaren esparruko ingurumen-kalitateko arauari buruzkoa), eta ur-masa horrek edateko ura ekoizteko egoera kimiko ona duen jakiteko.

Halaber, Osasun Sailera ere jo dugu, informazioa biltzeko, OIO-ESC 1 puntuan HCH plagizida hauteman zeneko azken analitikekin lotuta, 2013. urtean ezarritako protokoloa betetzen den edo ez jakiteko.

3. **URA Uraren Euskal Agentziaren informazioa.** URA Uraren Euskal Agentziak informazioa igorri digu, non egindako galderei erantzuten digun.

Edateko ura ekoizteko erabiltzen diren urei eskatzen zaien ingurumen-kalitateko irizpideei buruz, URA agentziak irizten du ur-masa horiek eremu babestuek direla. Hori dela eta, gainazaleko uren berezko ingurumen-helburuak bete behar





dituzte eta edateko urari buruzko 98/83/EE Zuzentarauan jasotako uren arazketa-erregimena aplikatzea zaindu behar dute. 60/2011 Errege Dekretuak, urtarrilaren 21ekoak, uren politikaren esparruko ingurumen-kalitaterako arauak buruzkoak, ezartzen du kutsatzaile jakin baten kontzentrazioak uretan, sedimentuan edo biotan zenbatekoa izan behar duen zehazten du, eta zenbateko hori ez duela gainditu behar giza osasuna eta ingurumena babestearren. Hexaclorociclohexanoa (HCH) lehentasunezko substantzia arriskutsutzat hartzen da, eta urteko batez besteko gehieneko kontzentrazioa $0,02 \mu\text{g/l}$ (20 ng/l) dela eta urteko gehieneko kontzentrazioa $0,04 \mu\text{g/l}$ (40 ng/l) dela ezartzen du. Edonola ere, URA Uraren Euskal Agentziaren ustez, HCH plagizidan ez dago ingurumen-kalitateko araurik biotarako, ez eta sedimenturako ere. Bestalde, otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuak giza kontsumorako uraren kalitatearen osasun-irizpideak ezartzen ditu. Arau honetan ez da HCH zuzenean aipatzen, plagizidak oro har aipatzen dira. Kasu honetan, kontsumitzailearen eskura jarritako uren balio parametrikoko batzuk ezartzen ditu. Balio horiek osasuna babesteko helburua bete behar dute eta hauek dira: $0,50 \mu\text{g/l}$ (500 ng/l) plagizidak guztira eta $0,10 \mu\text{g/l}$ (100 ng/l) plagizida bakarra.

Laburbilduz, kontsumorako ur-bilketen kasuan, ingurumen-helburua da ingurumen-kalitateko (60/2011 Errege Dekretua) eta giza kontsumorako (140/2003 Errege Dekretua) bi arauak betetzea. Edonola ere, URA Uraren Euskal Agentziak hau irizten du: *“Baina, kontsumorako uraren osasungarritasuna bermatzen bada, ingurumen-kalitaterako arauen betetzea ez da betekizuntzat hartu behar, bilketa bateko ura giza kontsumorako uren ekoizpenerako egoki gisa kalifikatu ahal izateko”*.

Ura edateko ura ekoizteko erabiltzea baimentzen duen egoera kimikoarekin lotuta, Ura Uraren Euskal Agentziaren ustez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, osasunaren arloko agintaria den aldetik, da eskumena duen organoa erabakitzekeko ur-masa bat edateko uraren ekoizpenera erabil daitekeen ala ez. Tartean dauden gainerako eragileek (URA Uraren Euskal Agentzia eta Kontrol eta Zaintza Unitatea) bilketaren egoeraren berri ematen dute, eta gehienaz ere, osasunaren alorreko agintariarekin koordinatuta jarduten dute.


Baldintza horietan, hau azaltzen du: 140/2003 Errege Dekretuko 7.2. artikulua adierazten du arroko organismoek eta administrazio hidraulikoek aldian-aldian ematen dizkiote osasunaren alorreko agintariari eta kudeatzaileari giza kontsumorako ura ekoizteko erabiltzen den uraren emaitza analitikoak, 927/1988 Errege Dekretuaren, uztailaren 29koaren, Uraren Herri-administrazioaren eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua onartzen



dituenaren, 1. eranskinean deskribatutako parametroekin bat eginez. Uretan biztanleriaren osasuna arriskua jar dezaketen kutsatzaileak daudela susmatuz gero, arroko organismoek eta administrazio hidraulikoek, osasun-agintariarekin koordinatuta, substantzia horien presentzia zehaztu eta ebaluatuko dute. Hori dela eta, azpimarratzen du, agindu horiekin bat, uren ingurumen-kalitateko araudia arretik betetzea ez dela betekizun bat, bilketa bateko ura giza kontsumorako uren ekoizpenerako egokitzat jotzeko.

Bestalde, 178/2002 Dekretuan, uztailaren 16koan, edateko uraren kalitatea kontrolatzeko eta zaintzeko nahiz horri guztiari buruz informatzeko sistema arautzen duenean, adierazitakoari erreparatuz, Kontrol eta Zaintza Unitateek egiten dituzte hornidura-sistemen eta sistema horietako uren kalitatearen urteko kontrol eta zaintza-programak.

Urtegiko uren egoerari buruz, hamabostean behingo laginketen emaitzek adierazten dute, azken bi urteetan, balioak kuantifikazio-mugaren azpitik egon direla beti (0,010 $\mu\text{g/l}$ 10 ng/l). 2011-2013 aldian, guztira erregistratutako HCH plagizidaren gehieneko kopurua hau izan zen: 0,057 $\mu\text{g/l}$ (57 ng/l), 2012ko martxoan. Edonola ere, URA Uraren Euskal Agentziak ondorioztatzen du *“Oiola urtegiko urek egoera kimiko ona dute eta, gaur egun, 60/2011 Errege Dekretuan ezarritako kalitate-arauak betetzen dituzte”*.




Urtegiari HCH plagizida dagoen ebaluatzen oharri ziren neurriekin dagokienez, URA Uraren Euskal Agentziak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak astean behin

kontrol bat egiten dute eta aldian behin laginketak egiten dituzte. Halaber, URA Uraren Euskal Agentziak Angela iturriaren (OIO-ESC 1) isurtzearen kontrol bat egiten du hamabost egunean behin, erabakiak hartzen lagunduko duten datuak lortzeko. URA Euskal Agentziaren txostenak azaltzen du *“Gaur egunera arte, kontrol-puntu horretan eskuratutako emaitzek berresten dute kutsadura-fokua pixkanaka-pixkanaka agortzen ari dela”*.

Bestalde, URAk iragarri du kontrol horiek osatu egingo dituztela, 2014ko udaberrian urtegiako sedimentuetan HCH plagizidaren kontzentrazioak zehaztuz.

URA Uraren Euskal Agentziak Angela iturriaren (OIO-ESC 1) isurketan egindako laginketen kasuan, 2011-2013 aldiko datuek HCH plagizidarako balio hauek izan zituzten: 2011n $0,343 \mu\text{g/l}$ – 343 ng/l – (batez bestean $0,031 \mu\text{g/l}$ 31 ng/l); 2012an, $0,026 \mu\text{g/l}$ (26 ng/l); eta 2013an, $0,030 \mu\text{g/l}$ (30 ng/l).



Azkenik, adierazi du Plataformaren idatziari erantzun zaiola. Idatzi horretan, Oiola urtegiari buruzko hainbat eskaera egiten ziren. Halaber, aurreikusita dago Oiola urtegian eta Angela iturriaren isurtzean erregistratutako HCH plagizidaren kontzentrazioen bilakaerak berehala argitaratzea aurreikusita dago, URA Uraren Euskal Agentziaren bidez, bai eta hamabostean behin eguneratzea ere, informazio hori interesdun guztientzat zuzenean eskuragarri egon dadin.

4. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren erantzuna. Bestalde, osasun-administrazioak txosten bat bidali digu, 2013. urtean Oiola urtegia giza



kontsumorako erabiltzeko zehaztu zen protokoloaren betetzeari buruz. Esaten duenaren arabera, protokolo hori bere baldintza guztietan betetzen da. Asteri laginketa bat egiten da, urtegian HCH isomeroak zehazteko, kontsumorako uraren bilteta-puntuak. Laginketa horietako bakar batean ere ez da hauteman HCH isomero bakar bat ere. OIO ESC 1 laginketa-puntua ez da aintzat hartzen protokolo horretan, URA Uraren Euskal Agentziak bere jardueren eta eskumenen baitan erabiltzen duen puntu bat da. Era beran, Plataformaren erantzuna berretsia izan da, Jarraipen Batzordearen bilera bat deitzea beharrezkoa ez dela iritziz.

Erreklamazio horiek ikusita, kexen planteamendua eta esparru horretan eskumena duten administrazioek bidalitako informazioa aztertu ondoren, egokitzen jo dugu hauek helaraztea:

Gogoetak

1. **Erreklamazioaren xedea.** Ezpitsua Plataforma Ekologistak aurkeztutako erreklamazioaren xedea Oiola urtegiko uren ingurumen-kalitatea planteatzen du 2013-2014 aldirian, Angela iturriaren (OIO-ESC 1) isurtzean hartutako laginketan hautemandako HCH mailen ondoren. Azaltzen dutenaren arabera, administrazio eskudunek ebaluatu behar dute auzi hori, Oiola urtegia Barakaldoko biztanleria urez hornitzeko edateko ura biltzeko egokia den ala ez zehazteko.

Talde horrek bere kezka adierazi du, herri-administrazioek behar bezala bermatzen Barakaldoko biztanleriaren kontsumorako uren kalitatea, 2008. urtetik urtegiaren ingurunean HCH plagizidaren kutsadura-foku batetik eratorritako noizbehinkako ekarpenen aurrean. Bestalde, elkarte ekologista administrazio eskudunari aldarrikatzen ibili da uren araudia ongi aplikatzeko, edateko ura biltzeko erabiltzen diren ur-masen ingurumen-betekizunei dagokienez.

Testuinguru horretan, Plataformak Jarraipen Batzordean baloratzeko zenbait neurri planteatzen ditu. Jarraipen Batzorde hori kutsadura-foku horren kudeaketan jardun zuten administrazioen artean sortu zen. Horretarako, batzordea deitzea eskatu du, Oiola urtegiko azken gorabehera behar bezala konpontzeko eta neurriak hartzeko uretan, sedimentuan eta biotan HCH plagizidaren kutsadura behin betiko bukatu dadin, bermatzeko hornidurarako erabiliko den urak eskatutako ingurumen- eta osasun-eskakizunak betetzen dituela.





2. **Arartekoaren aurreko ebazpenak.** Aurreko gertaerak aipatuz plataformak lehenago jada planteatu zuen erreklamazioa hau Arartekoaren aurrean, eta erreklamazio horiek zirela eta, bi ebazpen hauek egin ziren.

Batetik, Arartekoaren [2012ko martxoaren 19ko Ebazpena](#). Horren bidez, Bizkaiko Oiola urtegiko uraren kalitatea bermatzeko hartutako neurriei buruz Arartekoaren parte hartzea amaitzen du. Ebazpen horretan, gogora ekartzen genuen derrigorrezkoa zela informazio zehatza, nahikoa eta eguneratua ematea Plataformari Oiola urtegiko uren kalitatearen kudeaketari buruz. Halaber, Osasun Sailari adierazi genion parte hartzeko mekanismoak eta informazio-sistemak emateko, kontsumorako uren kalitatearen kudeaketarekin lotuta. Kalitatearen kontrolari dagokionez, planteatu genuen beharrezkoa zela protokoloan zehaztutako parametroak betetzen ziren egiaztatzea eta justifikatzea, eta Oiola urtegiaren HCH plagizida lehentasunezko substantzia arriskutsu gisa dagoela ebaluatzea, bere presentzia eteteko edo murrizteko.

Ondoren, [Arartekoaren 2013ko otsailaren 25eko Ebazpena](#), 2012ko azaroan izandako gertaera baten ondoren jazotako gorabeheraren ostean, Oiolako urtegitik datozen hiri-hornidurarako uren kalitatearen kontrolaren jarraipenari buruzkoa. Bigarren ebazpen honetan, ondorioztatu genuen Osasun Saila neurriak hartzen ari zela, aurreko ebazpenean aipatu genituen parte hartzeko eta informaziora sarbidea izateko mekanismoak bermatzeko. Edonola ere, proposatu genuen HCH plagizida Oiola urtegiko uretan nahiz biotan eta sedimentuetan ez egotea balioztatzeko neurriak hartzeko aukera aztertzea. Uren kalitateari buruzko informazio eskuratzeari dagokionez, Osasun Sailak jasotako informazioa helarazten jarraitu behar zuen, baita bildutako datuak behar bezala ulertzen direla bermatzeko eta lortutako balioei emaitzen zalantza aplikatzeko nahikoa den laguntza teknikoa ematen ere.

Erreklamazio horiek izapidetu ziren bitartean, bai administrazio hidraulikoak –URA Uraren Euskal Agentziak– bai osasunaren arloko administrazioak –Osasun Sailak– eskatutako informazio eta azalpen guztiak bidali dizkigute urtegiaren ingurunean HCH plagizida agertzeagatik salatutako gorabeheri buruz. Era berean, Arartekoak 2012ko irailean bilera bat egitea sustatu zuen Plataformaren eta bi administrazioen artean. Bilera horretan, administrazio horiek egin zitzaizkien galderei eta azalpenei erantzun zieten.

3. **Oiola urtegitik datorren uraren kalitatea, eta edateko ur osasungarritzat hartzea, osasun-irizpideei jarraiki.** Plataformaren kezka nagusia da Barakaldon kontsumitzen den uraren kalitatea. Otsailaren 7ko 140/2003 Errege



Dekretuak jasotzen ditu giza kontsumorako uraren kalitatearen osasun-irizpideak. Plagiziden kasuan, HCHren kasuan, esate baterako, osasun-araudiak banakako plagizida bakoitzaren $0,10 \mu\text{g/l}$ -ko (100 ng/l) gehieneko kontzentrazio-balioak ezarri ditu. Xedapen horrek Kontseiluaren 1998ko azaroaren 3ko 98/83/EE Zuzentaraua, giza kontsumorako uren kalitateari buruzkoa (Giza kontsumorako uraren Zuzentaraua) lekualdatzen du. Zehaztu behar da, balio parametrikoren azpitik, osasun-administrazioek ura osasungarritzat eta giza kontsumorako egokitzat jotzen dutela.

Igorritako informazioan erreparatu genuen osasun-administrazioak egiaztatu ahal izan duela Barakaldoko biztanleriak gaur egun kontsumitzen duen urak betetzen dituela 140/2003 Errege Dekretuan ezarritako giza kontsumorako uren balio parametrikokoak.

Oiola urtegitik datorren uraren kasuan –Basatxu ur-araztegiak tratatzen da ur hori–, 2008ko uztailean soilik hauteman ziren $0,192 \mu\text{g/l}$ -ko (192 ng/l) HCH mailak, 140/2003 Errege Dekretuko balio parametrikokoak gainditzen zituztenak. Gerora, urtegia hornidura-saretik deskonektatuta egon zen 2013ko apirilera arte (2011n eta 2012an denboraldi labur batzuetan izan ezik). Aldi horietan, eta Barakaldoko hornidura-sarera konektatu ondoren, igorritako txostenek eta analitikek jasotzen dute giza kontsumorako uren kalitate-balioak bete direla.

Hau da, 2008ko uztailean HCH plagizidagatiko lehen kutsadura-gertakaria hauteman zen une zehatz hori izan ezik, Oiola urtegitik Barakaldoko biztanleriak kontsumitzeko datorren ura osasungarritzat eta kontsumorako egokitzat hartu da.

4. **Edateko ura biltzeko erabiltzen diren ur-masei eska dakizkieken beste eskakizun batzuk.** Aurrekoa esan ondoren, zehaztu behar dugu Plataforma Ekologistaren keak azpimarratzen duela giza kontsumorako ura ekoizteko erabiltzen diren ur-masei osasun-kalitatea zehaztu aurreko eskakizun bat eskatu behar zaiela, ur-masek egoera ekologiko eta kimiko ona dutela zehaztea, hain zuzen.

Plataformaren ustez, ur kontinentalen ingurumen-kalitatearen araudia betez, administrazio eskudunak urtegitiko ura biltzeko edo edateko ura ekoizteko egokitzat kalifikatu behar du.

5. **Edateko ura biltzeko erabiltzen diren urei dagokienez aplikagarria den Erkidegoko Araudia.** Gai hau azaldu baino lehen, edateko uren bilketarako





erabiltzen diren uren betekizunak arautzen dituen egungo esparru juridikoari buruzko azalpen bat eman behar da. Urari buruzko politikan jarduera-esparru komunitarioa ezartzen duen 2000ko urriaren 23ko 2000/60 Zuzentarauko (Uraren Esparruko Zuzentaraua) 7. artikuluan –*“Edateko ura biltzeko erabiltzen diren urak”* izenekoan– berariaz arautzen da auzi hori.

Artikulu honen lehen atalean, mugape hidrografiko bakoitzean edateko ura biltzeko ur-masak identifikatzea, eta ur-masa horien egoera ekologikoaren eta kimikoaren jarraipena egitea derrigorrezkoa dela jasotzen da, Uraren Esparruko Zuzentaruaren V. eranskinarekin bat. Bigarren atalak hau ezartzen du betekizun gisa:

“En lo que se refiere a todas las masas de agua especificadas con arreglo al apartado 1, además de cumplir los objetivos del artículo 4 de conformidad con lo dispuesto en la presente Directiva con respecto a las masas de agua superficial, incluidas las normas de calidad establecidas a nivel comunitario con arreglo al artículo 16, los Estados miembros velarán por que, en el régimen de depuración de aguas que se aplique y de conformidad con la normativa comunitaria, el agua obtenida cumpla los requisitos de la Directiva 80/778/CEE, modificada por la Directiva 98/83/CE”.

7.2. artikuluan ezartzen da edateko ura biltzeko erabiltzen diren urek bi betekizun bete behar dituztela. Batetik, gainazaleko uren ingurumen-kalitateko helburuak bete behar dituzte –2008/1005/EE Zuzentaruaren, urei buruzko politikaren esparruan ingurumen-kalitateko araei buruzkoan, aurreikusitako helburuak, hain zuzen–; eta bestetik, giza kontsumorako urentzat aurreikusitako berariazko betekizunak bete behar dituzte, 98/83/EE Zuzentaraatik eratorritakoak. (Giza kontsumorako uraren zuzentaraua).

Artikulu honetan estatu kideei zuzendutako betebeharrak bat dago jasota: beren barne-zuzenbidean eremu babestuaren kategoria duten kalifikatutako ur-masen definizioa sartzea, bai eta ur horiek edateko ura ekoizteko egokitzat kalifikatzeko osasun eta ingurumen-betekizunak sartzea ere.

- 6. Edateko ura biltzeko erabiltzen diren urei buruzko erkidegoko araudia behar bezala lekualdatzeko betebeharra.** Gure aurreko ebazpenean adierazten genuen bezala, beharrezkoa da erkidegoko zuzentarau horretan jasotako betekizunak barne-araudira behar bezala lekuz aldatzea. Horrek agerian uzten du, Espainiako antolamendu juridikoan jasotako aurreikuspenei dagokienez, berekin ekar dezaketela aplikazio oker bat edo Zuzentaraatik eratorritako betebeharrekin bat ez egotea. Betebeharrak modu argian, zehatzean eta



garbian lekualdatzea funtsezkoa da, herritarren eskubideak ziurtatzeko eta herri-administrazioen betebeharrak zehazteko.

Plataforma ekologista kexagileak barne-zuzenbideko xedapenen aurrean Uraren Esparruko Zuzentarauaren aplikazio zuzenari buruz argudiatu dituen auziak, kontraesankorrak izan daitezkeenak, erkidegoko arauen eragin zuzenari apelatuz ebatzi behar dira.

Erkidegoko zuzentarauak onartzea eta zuzentarau horiek lekualdatzeko epea igarotzeak ondorio zuzenak dituzte beren aplikazioan eskumena duten administrazioentzat. Erkidegoko zuzentarauek eskatzen dute estatu kideek eskatutako emaitza lortzeko lekualdatze-epareen barruan. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak –1991eko azaroaren 19ko epaia, C-6/90 eta C-9/90 *Francovich*– epareen barruan lekualdatu ez diren baldintzarik gabeko xedapen zehatzen eragin zuzena aitortu du. Hautatutako neurriak eskatutako emaitzarekin bat ez datozenean ere gauza bera gertatzen da.

Hala, Uraren Esparruaren Zuzentaraia lekualdatzeko epea amaitzen denetik, xedapen argiak eta zehatzak, bigarren ataleko 7. artikuluan adierazitakoak bezalakoak, estatu kideei zuzenean eskatu beharrekoak dira, betebeharrak horien eta betebeharrak horietatik sortzen diren eskubideen aurkakoak diren xedapen nazionalak antolamendutik lekualdatuz.

Europako Erkidegoko zuzenbideko eraginkortasun zuzenaren printzipioarekin bat, osasunaren eta ingurumenaren arloko betekizun bikoitz hori aplikatu beharra dago, giza kontsumorako urak biltzeko erabiltzen diren ur-masak zein diren zehazteko, eta Uraren Esparruko Zuzentaraiko betekizuna betetzea bermatzeko administrazio-neurriak ere aplikatu behar dira.

Eragile juridiko guztiei dagokie lekualdatze egokia izan ez den zehaztea, eta azken batean, Europar Erkidegoko erakundeei. Bestalde, zehaztu behar da lekualdatzea barne-zuzenbidean zuzenean lotuta dagoela Espainiar Estatua antolatuta dagoen eskumen eta erakunde-esparruarekin. Edonola ere, Europar Erkidegoko zuzenbidea zuzenean aplikatzea zuzenbide horren aplikazioan parte hartzen duten eragile eta erakunde guztiei dagokien eskumen bat da.

Edonola ere, aurrekoa betetzeari utzi gabe eta gure balorazioaren esparru zorrotzean, interesgarria da adieraztea artikulua hori aplikatzean gerta litezkeen desitxuratzei erreparatu zaiela eta kasu honetan garrantzia duten xedapenetan eragina izan dutela. Esate baterako 140/2003 Errege Dekretuko 7. artikulua kasua aipa dezakegu, giza kontsumorako urentzako osasun-





betekizunak ezartzen dituen aldetik, Uraren Esparruko Zuzentarauko 7.2. artikulua aipatutakoak osorik jasotzen ez dituzten irizpide batzuei jarraiki.

Edateko urak biltzeko erabiltzen diren urei aplikatzeko legezko esparru horrek ez du berekin ekarri Europar Erkidegoko zuzenbidearen aurkakoak izan daitezkeen estatuko xedapen batzuk zuzen egokitzea, gure ustez egokia izango zen bezala.

140/2003 Errege Dekretuko 7.3. artikulua ezartzen du administrazio hidraulikoak informazioa eman behar duela uztailaren 29ko 927/1988 Errege Dekretuak onartutako Uraren Administrazio Publikoaren eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduan (Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua) deskribatutako kalitate-parametroei buruz.

Hala ere, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendu¹ horren bertsio finkatuak indarrean mantentzen du edateko uraren ekoizpenerako erabiltzen diren gainazaleko urei eskatutako kalitate-mailei buruzko erreferentzia. Kalitate-maila horiek jada indargabetutako 75/440/EEE Zuzentarauko mailak barne hartzen dituzte. Era berean, kasu honetan, 1988ko maiatzaren 11ko Aginduak, edateko ura ekoizteko erabiltzen direnean gainazaleko uren korranteetan mantendu behar diren oinarriko kalitate-ezaugarriei buruzkoak, kalitate-parametro berdin-berdinak mantentzen ditu, ezaugarri horiek Uraren Esparruko Zuzentaruaren baldintzak aintzat hartuz berrikusiak izan behar zutenean.

Europar Erkidegoko Zuzenbidea, kasu honetan Uraren Esparruko Zuzentaruak, lekualdatzeko betebeharrak berekin dakar esparru horretan parte hartzen duten herri-administrazioek Uraren Esparruko Zuzentarauko 7.2. artikuluan adierazitako osasun-irizpide bikoitza zuzenean aplikatu behar izatea, bai 140/2003 Errege Dekretuko 7. artikulua eta 927/1988 Errege Dekretuak jasotzen duen 1. Eranskinaren kasuan.

Europar Batzordeak Espainiar Estatuarekin batera jarraitutako hainbat jarduketetan eman du aditzera Uraren Esparruko Zuzentaruak ez dela zuzen lekualdatu, esparru horri dagokionez bere erantzukizuna diren betebeharrak ez betetzeagatik. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2013ko urriaren 24ko epaiak –C-151/12 auzia– duela gutxi berriaz kondenatu du Espainiar

¹ 1. eranskinak hau jasotzen du: *Plan hidrologikoek finkatutako edateko ura ekoizteko erabiltzen diren gainazaleko uren kalitate-mailek ezin izango dute izan ondoko taulan aurreko atalean ageri diren kalitate motetarako azaltzen direnak baino zorrotzasun gutxiagokoak, edatekoak izateko tratamendu berezi bat ematea aurreikusten denean salbu.* Pestiziden kasuan, kalitate-arau batzuk jasotzen ditu giza kontsumorako urentzat, eta banakako plagizida bakoitzarentzat 1 µg/l-ko (1000 ng/l) gutzitzko gehieneko plagizida kontzentrazioaren balioekin.

Estatua 2000/60/EE Zuzentarauko² 7.2. artikularen lekualdatze egokia bermatzeko behar diren neurriak garaiz ez hartzeagatik.

Artikulu hori egoki lekualdatzeko kontua, gure ustez, oraindik behar bezala ebatzi gabe egongo litzateke gure legerian. Edonola ere, Europar Batzordeak ebatzi beharko luke, bera baita Europar Erkidegoko Zuzenbidearen aplikazioa zaintzeko organo eskuduna. Europar Batzordearen 2010eko martxoaren 18ko irizpen motibatuak c(2010)1495, Uraren Esparruko Zuzentarauko betebeharren betetzeari buruzkoak, hau adierazten zuen 7.2. artikulari buruz:

“En relación a la transposición del apartado 2 del Artículo 7 de la DMA la Comisión constata el reconocimiento por las autoridades de la no transposición de dicha obligación, sin que pueda aceptar la pretensión de que esta disposición ya se encuentra recogida en el ordenamiento español a través tanto de la legislación de sanidad (Real Decreto 140/2003, de 7 de febrero, por el que se establece los criterios sanitarios de la calidad del agua de consumo humano) sobre aguas potables como en la legislación de aguas.

En efecto, la obligación de la DMA consiste no sólo en que se cumplan los objetivos del artículo 4 y se respeten los requisitos de la Directiva 80/778/CEE, modificada por la Directiva 98/83/CE, en el punto en el que el agua es suministrada al consumidor sino en que se especifique, en los planes hidrológicos dentro de cada demarcación hidrográfica, cómo se van a proteger las masas de agua utilizadas para la captación de agua potable y las destinadas a tal uso en el futuro.

Adicionalmente, la Comisión constata que la normativa sanitaria no puede transponer las obligaciones derivadas del apartado 2 del artículo 7 de la DMA en tanto que no protege de ningún modo la masa de agua. A ello se añade que la legislación de aguas tampoco contiene una transposición apropiada dado que no recoge la obligación de que, junto con los objetivos del artículo 4, se asegure el cumplimiento de los estándares del agua potable teniendo en cuenta el tratamiento aplicado.

Considerando que el ámbito de aplicación de la DMA es las masas de agua, se trata de aplicar medidas de protección para las mismas con el fin de asegurar ese objetivo adicional, siendo la selección de las medidas concretas una facultad del Estado miembro.”

² Europar Erkidegotik kanpo dauden arrotan, Europar Batzordeak onartzen du Zuzentaru horretako 7. artikuluko 2. atala formalki lekualdatu dela Espainiako legedira, ARM/1195/2011 Aginduaren bidez (ARM/1195/2011 Agindua, maiatzaren 11koa, plangintza hidrokologikoen instrukzioa onartzen duena. Agindu horretan, gizakiaren hornidurarako ura biltzeko eremuak eremu babestu gisa daude jasota. Hala ere, 5.1.1.4. atal berriak eremu babestuetan urak edateko on bihurtzeko tratamendua egiteko betebeharra baino ez du jasotzen, 140/2003 Dekretuaren, otsailaren 7koaren, arabera (hori jada derrigorrezkoa zen, Errege Dekretu hori oinarri hartuta). Edonola ere, Agindu horrek ez du ezartzen derrigorrezkoa denik ingurumen-kalitatetarako arauak betetzea, Uraren Esparruko Zuzentarauko 4. eta 16. artikuluek jasotzen dituzten baldintzetan eta epeetan.



Hitz batean, Europar Batzordeak xedapen horri buruz egiten duen interpretazioak berekin dakar legezko esparru bat ezartzeko betebeharra, non bilketarako erabiliko diren urek ingurumen-helburuak eta giza kontsumorako uren osasun-betekizunak beteko dituzten. Era berean, mugape bakoitzeko plan hidrológicoek berariaz bere baitan hartu behar dutela auzi hori eta ur-masa horiek babesteko ekintza-planak jaso behar dituztela.

- 7. Edateko ura ekoizteko erabiltzen diren urei eskatu beharreko ingurumen-kalitateko arauak.** Uraren Esparruko Zuzentarauko 7.2. artikulua jasotzen duen lehen betekizuna da edateko ura ekoizteko erabiltzen diren gainazaleko urak eremu babestutzat hartu behar izatea eta 4. artikuluko ingurumen-helburuak betetzea. Xedapen horrek agintzen du arroko plan hidrológicoetan berariazko neurrien programak abian jarri behar direla, gainazaleko urak egoera onean egotea lortzeko Zuzentzarua indarrean jarri (2015eko abenduaren 22a) eta hamabost urte geroago –beranduena jota–. Halaber, bere 16. artikuluari jarraiki, agintzen du uren kutsadura kimikoaren aurkako neurri zehatzak aplikatzea. Bereziki, ingurune urtarrarentzat edo ingurune urtarraren bidez arrisku esanguratsua berekin dakarten lehentasunezko substantzia arriskutsuen isurtzeak edo galerak eteteke edo pixkanaka-pixkanaka kentzeko. Horretarako, Europar Erkidegoko araudiak ezartzen du lehentasunezko substantzia arriskutsu horien zerrendak finkatu behar direla, eta gainazaleko uretan ingurumen-kalitateko arauak zehaztu behar direla, eta epe luzera, baita sedimentuetan eta biotan ere.

2008ko abenduaren 16ko 2008/105/EE Zuzentzarua ingurumen-kalitateko arauak zehazteko tresna izan da gainazaleko uretako lehentasunezko substantzientzat. Xedapen horrek ezartzen du derrigorrezkoa dela estatu kideek esku hartzea, uren kalitate kimikoa kontrolatzeko. Kutsadura kimikoa da ingurune urtarrarentzat, eta ondorioak ditu organismo urtarretan, bai eta gizakien osasunean ere. Ingurumen-kalitateko arauak ur-masei edo, hala badagokio, biotari edo sedimentuei, neurtutako gehieneko kutsatzaile-kontzentrazio onargarriak ezartzen dituzte. Izatekotan ere, sedimentuan eta biotan epe luzerako joerako analisia egiteko betebeharra zehazten du, metatzeko joera duten lehentasunezko substantzien kontzentrazioei dagokienez.

Horiek dira, laburbilduz, edateko ura ekoizteko erabiltzen diren gainazaleko uretan eskumena duen administrazioak 2008/105/EE Zuzentzarua espainiar antolamendura sartu zen egunetik aplikatu behar dituen oinarriko kalitate-arauak eta, izatekotan ere, 60/2011 Errege Dekretua, Europar Erkidegoko





arau hori lekualdatzeko erabili zena, indarrean jarri zenetik aplikatu behar dituenak.

Eremu babestuen kasuan, hala nola hornidurarako ur-masa horiek, ingurumen-helburuak dagozkien plan hidrológicoetan jaso behar dira, aurreikusitako epe baten barruan eta beranduenez jota 2015eko abenduan, kutsadura kentzeko estrategia batekin batera.

Hori dela eta, lehen azaldu dugun bezala, oraindik edatekoak ez diren ur horien osasun-kontrola egungo ingurumen-araudiak arautzen dituen ingurumen-kalitaterako arauen arabera egin behar da, lehentasunezko substantzia kutsatzaileekin lotuta. Arau horiek zorrotzagoak dira giza kontsumorako urei substantzia kutsatzaile batzuentzat, hala nola plagizidentzat, eska dakizkieken balio parametrikokoak baino.

Ingurumen-eskakizun horrek berekin dakar ingurumen osorik babestea beharrezkoa izatea kutsatzaile toxikoenen, iraunkorren eta biometagarrien aurrean. Alde batetik, uretan isurpenak egitearen aurkako prebentziozko estrategia batek ingurunean eragin esanguratsuak eta arriskuak izatea saihesten du, besteak beste komunitate pelagikoa babesteko neurriak zehaztuz. Beste aldetik, ingurumen-araudi honen eskakizunak ere eragina du giza osasunarentzako arriskuen prebentzioan eta ur-masa horien kalitatea narriatzea saihesten du, edateko ura ekoizteko behar den arazketaren tratamendu-maila murrizteko.

Hortaz, ingurumen-kalitaterako arauak, kutsadura murrizteko estrategia eta lehentasunezko substantzientzako urteko batez besteko edo gehieneko balio parametrikokoak, 2008/105/EE Zuzentarauak bere baitan hartutakoak, edateko ura ekoizteko erabiltzen diren ur-masa guztietan aplika daitezke 2010eko uztailaren 13tik.

- 8. Ingurumen-kalitaterako arauak ez betetzearen ondorioak edateko ura ekoizteko erabiltzen diren urak kalifikatzeko.** Lehentasunezko substantzien kontrola eta prebentzioa egiteak berekin dakar herri-administrazioek derrigorrez bete behar multzo bat bete behar izatea. Alde batetik, berekin dakar plangintza bat eta programazio bat egitea, 907/2007 Errege Dekretuko 35. artikuluko aurreikuspenekin bat eginez. Plangintza eta programazio hori dagozkien plan hidrológicoen bidez uztartu behar dira. Plan hidrológicoak ekintza-programak jasoko ditu. Ekintza-programa horiek, besteak beste, bere baitan hartuko dituzte ingurumen-helburuak betetzeko neurriak eta gainazaleko uretatik lehentasunezko substantzia arriskutsuengatik, bai noizean



behingo isurtzeengatik, bai iturri zehaztugabeetako galeretatik, bai ezbeharrezko kutsaduraren gertaerengatik, sortutako kutsadura kentzeko neurriak.

Urak kutsatzea eragin dezaketen iturri zehaztugabeen kasuan, uren araudiak ekintza-plan bat³ onartzea aurreikusi du, kutsatzaileen sarrera zaintzeko eta kontrolatzeko. Plan horrek neurri multzo bat hartzea eskatzen du –administrazio eskudunekin koordinatuta–, kutsaduraren jatorria zein den identifikatzeko, kutsadura ur-masan sartzea saihesteko edo kontrolatzeko eta uren ingurumen-kalitateko helburuak betetzeko egokiak diren kutsadura-iturrietan esku-hartzeko, horretarako ingurumen-praktika egokienak abian jarritz.

Beste aldetik, ingurumen-kaliterako arauak ez betetzearen ondorioak zeintzuk izan behar duten planteatzen da, edateko ura ekoizteko erabiltzen diren urak kalifikatzeko. 1988ko maiatzaren 11ko Aginduak, edateko ura ekoizteko erabiltzen direnean gainazaleko uren korronteetan mantendu behar diren oinarritzko kalitate-ezaugarriei buruzkoak, hau adierazten du: *“Las aguas superficiales que posean características físicas, químicas y microbiológicas inferiores a los valores límite obligatorios correspondientes al tratamiento mas completo no podrán utilizarse para la producción de agua potable”*. Edonola ere, salbuespen gisa erabili ahal izango dira tratamendu egoki bat erabiltzen bada, eta Europar Batzordeari horrela jakinarazten bazaio.

Laburbilduz, oraindik edatekoak ez diren urak biltzeko urei ingurumen-irizpideak aplikatzeak, indarreko araudiak jasotzen duenak, berekin dakar administrazio eskudunek ur horien osasun-zaintzan parte hartzea. Hori dela eta, ingurumen-kaliterako arauak ez badira betetzen, ur horiek ezin izango dira erabili edateko ura ekoizteko, substantzia kutsatzailea sartzea eragotziko duen tratamendu egoki bat onartzen denean izan ezik.

- 9. Edateko ura ekoizteko erabiltzen diren uren osasun-zaintza egiteko organo eskuduna.** Egungo legediak, eskumen-banaketako araudiarekin bat, irizten du edateko uren kontrolaren erregimena eta oraindik edatekoak ez diren uren kontrolaren erregimena bere lurraldea zeharkatzen duten gainazaleko uretan Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola, Euskal Autonomia Erkidegoko 18.1. artikulua jasotzen duen osasun-zaintzako eskumen-titulua oinarri hartuta.

³ Maiatzaren 11ko ARM/1995/2011 Aginduaren 5.1.1.5. atala. Agindu horren bidez, ARM/2656/2008 Agindua, irailaren 10ekoa, plangintza hidrologikoaren instrukzioa onartzen duena, aldatzen da.



Konstituzio Auzitegiaren urriaren 31ko 208/1991 epaiak hau irizten du: *“la diferencia entre aguas potables y “prepotables” no afecta a su destino último, que es, predominantemente, el consumo humano, ni disminuye la finalidad sanitaria de los controles que, sobre ambos tipos de aguas, se efectúan”.*

Gauzak horrela, uztailaren 16ko 178/2002 Dekretuak jasotzen duenari jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Osasun saila da edateko ura ekoizteko erabil daitezkeen ur-masak zein izan behar duten zehazteko eskumena duen agintaritzatza. Horretarako, uren kalitatearen kontrolean esku hartzen duten gainerako eragile guztiekin batera esku hartu behar du, Uraren Esparruko Zuzentarauko aipatu 7. artikulua jasotzen dituen osasun- eta ingurumen- araudiarekin bat.

10. Ingurumen-kalitaterako arauak eta HCH kutsatzaile organiko iraunkorra.

Lindanoa HCH ganma isomeroa duen produktu organiko kimiko bat da. XX. mendearen bigarren erdian konposatu kimiko hori pestizida gisa ekoiztea eta erabilia izan zen. Azken urteetan, pertsonen osasunean eta ingurumenean izandako ondorio larriei buruzko azterlanak zirela eta, zenbait muga eta murrizketa ezarri dira.

Hasiera batean, Europar Erkidegoko araudiak urteko kontzentrazioko konposatu horientzako mugak bere baitan hartu zituen. Hala, Kontseiluaren 1984ko urriaren 9ko 84/491/EEE Zuzentarauak helburuak eta muga-balioak ezartzen zituen hexaclorociclohexano-isurtzeentzat (HCH). Bere aldetik, Osasunaren Mundu Erakundeak edateko uraren kalitaterako gidan 2.000 ng/l2-ko erreferentziatzako balioa ezarri zuen.

Geroago, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 850/2004 Erregelamenduak, kutsatzaile organiko iraunkorrei buruzkoak, proposatu du HCH plagizidaren ekoizpena eta erabilera debekatzea. Erkidegoko erregelamendu horrek Erkidegoaren altxorrean sartu du Stockholmeko Hitzarmena. Hitzarmen horretan, lindanoa kutsatzaile organiko iraunkor gisa sartu da, bere ondorio toxikoengatik, narriadurarekiko erresistentek izateagatik eta biometagarria izateagatik.

Garrantzitsua da adieraztea uren ingurumen-kalitateari buruzko Europar Erkidegoko politiken baitan, 2008/105/EE Zuzentarauak, HCH lehentasunezko substantzia arriskutsu gisa sartu duela. Horrek berekin dakar Europar Batasuneko estatu kideek beren baliabideak erabili behar dituztela, isurtzea eteteko eta kentzeko, eta azken helburu gisa, Europar Erkidegoko ur guztietan kentzea lortzeko.






Lehentasunezko substantzia arriskutsuentzako ingurumen-kalitateko arauen kasuan, I. eranskinak HCH pestizida sartu du. Arau horrek 40 ng/l-ko gehieneko kontzentrazio onargarria ezartzen du gainazaleko urentzat, eta urteko 20 ng/l-ko neurria ezarri du. Parametro hori HCH plagizidaren isomero guztien guztizko kontzentrazioari aplikatzen zaio. Bestalde, ingurumen-kalitaterako arau hori dagozkion plan hidrologikoei gehitu behar zaie, Zuzentarau hori indarrean jartzen denetik.

- 11. Kutsadura-gertaera Oiola urtegian.** Aurrekarietan azalduta geratu den bezala, Osasun Saileko zaintza-sareak kutsadura-gertaera bat hauteman zuen 2008ko uztailean Basatxuko tratamendu-estazioko kontsumorako uretan. HCH pestizidaren zenbait isomero hauteman ziren. 2008. urtean hautemandako gehieneko balioak isomeroen baturarako 491 ng/l-koak izan ziren eta 141 ng/l-ko batez bestekoa izan ziren. Emaiza horiek uztailearen 7ko 140/2003 Errege Dekretuko aurreikuspenak gainditzen zituzten, giza kontsumorako uren osasun-kalitaterakoak. Hori dela eta, Osasun Sailak dekretuz agindu zuen urtegia Barakaldoko biztanleria hornitzeko erabiltzeari uztea. Osasun-administrazioak 2013ko apirilera arte mantendu du urtegia itxita (2011ko eta 2012ko baimendutako bi denboraldi laburretan izan ezik).

Urteko HCH balioak, 2008ko datuekin alderatuta murriztu egin badira ere, 2009an 33 ng/l-ko gehieneko kontzentrazioak izan dira; 2010ean, 56 ng/l-koak; 2011m, 25 ng/l-koak; eta 2012an, 57 ng/l-koak.

Urtegiko urak zaintzeko planak bere baitan hartzen du Oiola urtegiara urak isurtzen dituen beste puntu bat, Angela iturriaren isurtzea (OIO ESC 1). Puntu horretan, hautemandako balioek 2011. urtean 343 ng/l-ko gehieneko balioa izatera iritsi dira, 2012. urtean 26 ng/l-koa eta 2013. urtean 30 ng/l-koa.

Zehaztu behar da kontrol eta zaintza-esparruak bere baitan sartu behar duela Oiola urtegiako ingurune osoa. Uren araudian agintzen du eremu babestuen perimetroa mugatu egin behar dela, esate baterako edateko ura biltzeko erabiltzen diren eremuak. Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurraldeko Zati Planak 200 metroko zabalerako babes-eremu perimetral bat zehazten du urtegiaren gehieneko maila arruntari dagokion lerrotik hasita, presako uretatik gora eta ibaiadar arroaren barruan.



Baldintza horietan, urtegiko uren kalitatearen kontrolak eta zaintzak urtegiaren perimetro osoa hartu behar du barne. Hori dela eta, Angela iturriaren (OIO-ESC 1) isurtzeak zehaztutako kontrol-puntua urtegiko babes-eremuaren betekizunen baitan sartuta dagoela jo behar da, ingurumen-kalitaterako arauetatik eta herrestatzeagatiko ekarpen hori kentzeko ekintza-planetik eratorritako ingurumen-betekizunak betetze aldera.

Lehen azaldu dugun bezala, osasun-administrazioa da edateko urak, eta kasu honetan bezala, oraindik edatekoak ez diren urak kontrolatzeko eskatu behar diren osasun-arauak aplikatzeko eskumena duen organoa. Oraindik edatekoak ez diren uren ingurumen-kontrolerako araudiak bilakaera bat bizi izan du Uraren Esparruko Zuzentarauko 7.2. artikulua eta 2008/105/EE Zuzentaraua, gainazaleko uren esparruan ingurumen-kalitaterako arauari buruzkoa, indarrean jarri zenetik. Edonola ere, edateko ura ekoizteko erabiltzen diren uren ingurumen-kalitaterako zehaztutako balioak erreferentziazkoak dira 60/2011 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik.

Emandako datuen arabera, Oiola urtegiaren perimetroan (OIO-EMB eta OIO-ESC1) urteko gehieneko HCH kontzentrazioek gaintitu egin dute urteko 40 ng/l-ko gehieneko kontzentrazioa 2011. urteko eta 2012. urteko kanpainetan. Hori dela eta, hausnartu beharko litzateke aldi horietan ur-masa horrek ez duela egoera kimiko ona izan⁴.

2013-2014ko azken gorabeheraren kasuan, erreklamazio honen xede denean, Oiola urtegian (OIO-ESC 1) HCH plagizidaren mailak hauteman dira, eta 2013an kontzentrazioak 30 ng/l-koak eta 2014an 26 ng/l-koak izatera iritsi

⁴ Ibaizabaleko itsasadarrean eta bere ibaiadar nagusietan hexaclorociclohexanoagatiko kutsadurari buruzko azterlaneko datuekin bat. Aztik URA Uraren Euskal Agentziarentzat egindakoa.



dira. Hori dela eta, emandako datu horiek kontuan izanda, hausnartu beharko litzateke ur-masa horretan egoera kimiko ona lortu dela.

- 12. Osasun-zaintzako protokoloa eta urtegiaren ingurunean HCH plagizidak eragindako kutsadura-gertaera horretan esku hartzeko neurriak.** Edonola ere, zehaztu behar da lehentasunezko substantzia arriskutsu hori hautemateak eta substantzia hori biometagarria izateak berekin dakarrela uretan eskumena duen administrazioak zaintza eta kontrol-neurrien plan bat ezarri behar izatea, epe luzean sedimentuan eta biotan zer-nolako joera duen jarraitzeko.

Hori ez da oztopo euskal administrazioak osasun-zaintzako bere eskumenak erabiliz giza osasuna gehiago babesten duten kontrol-arauak zehaztu ahal izateko.

Kasu honetan, osasun-administrazioak 2008ko uztailean Oiola urtegitik zetorren uretan HCH hauteman ondoren, tartean sartutako administrazioen artean batzorde bat sortzea sustatu zuen, kutsadura-foku hori kudeatu ahal izateko: Batzorde horren helburua izan da urtegian eta iturriaren isurtzean HCH plagizidaren kontzentrazioen jarraipena egitea, eta HCH plagizidaren mugak gaindituz gero, jarduketa-protokolo bat onartzea. Protokolo hori jarraitzeak berekin ekarri du urtegia hainbat aldiz ixtea.

Batzorde horrek, osasun-administrazioa buru duenak, zaintza eta kontrol-protokolo bat ezarri du, urtegi hori biztanleriaren hornidurarako erabiltzeko. Protokolo horrek –2013. urtean onartutako azken prozeduran– ezarri du astero laginketa bat egin behar dela, urtegian HCH plagizidaren isomeroak zenbatekoak diren zehazteko, eta HCH plagizidaren kontzentrazio-balio muga bat ezarri du (isomero bakoitzaren 20 ng/l), urtegia hornidura-sarearekin lotzea baimentzeko. Gai horrekin lotuta dauden administrazioekin batera sartu da plataforma ekologista batzordean, eta azken bilkuran parte hartu du.

Protokolo hori aplikatuz enetik, urtegia hornidura-sarearekin lotzea eragozteko balio izan du, urtegiko HCH plagizidaren ekarpenek finkatutako muga-balioak gainditzen zituztenean. Bestalde, osasun-administrazioak egiaztatu du osasun-irizpideetan jasotako parametroak betetzen direla, kontsumitzeko ura kontsumorako egokitzat jotzeko.

Aipatu behar da protokoloan zehaztutako gehieneko balioak (banakako isomero bakoitzaren 20 ng/l) eta gainazaleko uren ingurumen-araudian jasotako ingurumen-kalitaterako arauetakoak (HCH plagizidaren isomero guztien baturaren 40 ng/l) desberdinak direla. Hori ez da oztopo, neurri





bermatzaileago bat den neurrian, ingurumen-kalitaterako arauen ordeztu aplikatzeko.

Kutsadura-fokuaren jatorriari buruz, URA Uraren Euskal Agentziak bi txosten egiteko agindu dio EHUri, zehazteko zer jatorri izan duen kutsadura horrek eta jakiteko ea loturarik duen eurien ugaritzearekin. Ezin izan da zehaztu HCH plagizidaren foku horren edo foku horien jatorria; urtegiaren inguruneke lege kontrako isurketa batean egongo litzateke jatorri hori. Isurtzeek eraman dituzte herrestan HCH plagizidaren metaketa horiek, eta iturrien eta iturburuen bidez La Gorriga erreka isuri dituzte. La Gorriga erreka, era berean, ura isurtzen du Oiola urtegiari.

Batzordeak hartutako neurriak HCH mailak zaintzean dautza. Denboraren joanean, maila horiek murriztu egin dira, URA Uraren Euskal Agentziak ondorioztatu duen arte hautemate-fokua agortu dela. Edonola ere, bost urte baino gehiago igaro diren arren, oraindik ere urtegiari noizbehinka HCH kutsatzailea dagoela eta Oiolako urtegiari urretara isurtzen dela hauteman da.

Testuinguru horretan, URA Uraren Euskal Agentziak jakinarazi digu 2014ko udaberrian sedimentuan HCH plagizida dagoen zaintzeko eta kontrolatzeko lanekin aurrera jarraituko duela.

* * * *

Kexan dauden eta administrazio horiek bidalitako informazioan datuak eta aurreko gogoetak aintzat hartuta, azken ondorio eta gomendio hauek egingo ditugu:

Ondorioak

Oiolako kontsumorako uren osasun-kalitatea. 2008ko uztailean HCH plagizidagatiko lehen kutsadura-gertakaria hauteman zen une zehatz hori izan ezik, Oiola urtegitik Barakaldoko biztanleriak kontsumitzeko datorren ura osasungarritzat eta kontsumorako egokitzen hartu da.

Oiolako kontsumorako urak biltzeko uren ingurumen-kalitatea. Emandako datuen arabera, Oiola urtegiaren perimetroan (OIO-EMB eta OIO-ESC1) urteko gehieneko HCH kontzentrazioek gaitzitu egin dute urteko 40 ng/l-ko gehieneko kontzentrazioa 2011. urteko eta 2012. urteko kanpainetan. Hori dela eta, hausnartu beharko litzateke ur-masa horrek aldi horietan ez duela lortu egoera kimiko ona izatea.



Horrek berekin ekarriko luke ekintza-plan bat ezarri behar izatea, kutsadura-fokua non dagoen hautemateko, eta Oiola urtegira HCH plagizida isurtzea prebenitzeko eta isurketa horiek kentzeko programa bat ezartzea, Europar Erkidegoko legediaren baldintzetan.

Kasu honetan, Oiola urtegiko kutsaduraren jarraipena egiten duen Batzordeak bideratu du ekintza-plan hori. Batzorde horretan, uraren kalitatea zaintzeko erabakiak eta uren kutsadura prebenitzeko neurriak hartu dira. Esate baterako, jarduketa-prozedura bat onartu zen urtegiaren erabilera eteteko, 20 ng/l azpitik HCH plagizidaren isomeroak hautematen baziren.

Hala ere, ez da lortu HCH plagizidaren kutsadura-fokua non dagoen aurkitzea plan horren bidez. Foku horrek, pixkanaka agortzen joan den arren, gaur egunera arte urtegira HCH isurtzen jarraitu du. Halaber, planak ez du urtegiaren HCH plagizidaren sarrera murrizteko edo plagizida horren ekarpena eteteko neurri jakinik hartu, urak tratatzeko edo arazteko ingurumen-praktika onenen bidez.

Edonola ere, denboraren joanean urtegira isuritako HCH plagizidaren ekarpenak murriztu egin dira, eta 2013ko eta 2014ko kanpainetan ingurumen-kalitaterako arauen azpitik dauden mailak lortu ziren. Hala ere, duela gutxi urtegiaren perimetroan HCH plagizidaren hondar-mailak hautematen jarraitu da, baita protokoloak finkatzen duen 20 ng/l-ko mailatik gorakoak ere.

Hori dela eta, 3/1985 Legearen, otsailaren 27koaren, Arartekoa sortu eta arautzen duenaren, 11.b) artikuluan agindutakoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta URA Uraren Euskal Agentziari iradokizun hau aurkezten zaio:

IRADOKIZUNA

- Ur kontinentalen ingurumen-kontrollean eta osasun-zaintzan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek legezko garapen zuzen bat sustatu behar dute Uraren Esparruko Zuzentarauko 7.2. artikulua jasotzen dituen betekizunak lekualdatzen eta arautzen eskumena duen administrazioaren aurrean. Era berean, administrazio hidraulikoak bere eskumenen esparruan sustatu behar du irizpide horiek aintzat hartzea izapidetzen eta onartzen laguntzen duen plan hidrologikoetan.





- Administrazio horiek ur-masa horiek osasun eta ingurumen-betekizunak betetzen dituztela bermatzeko prozedura bat finkatu behar du, edateko ura biltzeko egokia den urtzat hartu aurretik.

Prozedura horrek bere baitan hartu behar du ekintza-plan bat, biltzeko ur-masa horiek egoera kimiko egokiaren kalifikazio hori gerora betetzen ez dutenerako edo lehentasunezko substantzia arriskutsuak hautematen direnerako. Ekintza-plan horretako erabakiak publikoak izango dira, eta administrazio eskudunen artean koordinatuta hartu beharko dira, eta pertsona eta elkarte interesdunek parte hartu ondoren.

Plan horrek kutsadura-fokua identifikatu beharko du eta ekintza-neurri jakinak aplikatu beharko ditu, lehentasunezko substantzia arriskutsuen isurtzetik eratorritako kutsadura kimikoa eteteko eta kentzeko. Halaber, planak urtegiaren HCH plagizidaren sarrera murrizteko edo plagizida horren ekarpena eteteko neurri jakinak hartzen jarraitu beharko du, urak tratatzeko edo arazteko ingurumen-praktika onenen bidez.

- Testuinguru horretan, Oiola urtegiako uren zaintzarako eta kontrolerako batzordeak funtzionatzen jarraitu beharko du, eta aldian-aldian bilkurak deitu beharko ditu, epe luzera HCH plagizidaren kutsadura desagertzen den arte Oiola urtegiako ingurune osoan, bere uretan, sedimentuan edo biotan.

Urtegiara HCH plagizida isurtzen jarraitzen bada, ingurumen-kalitaterako arauen muga baitan bada ere, Oiola urtegiako batzordeak jarraitu egin beharko du uretan lehentasunezko substantzia arriskutsu horiek sartzen duten kutsadura-fokuak eteteko edo pixkanaka kentzeko neurriak hartzen. Baldin eta ezin bada jatorrizko fokua identifikatu eta Oiola urtegiako uretara HCH isurtzen jarraitzen bada, Batzordeak urak tratatzeko edo arazteko aldi baterako ingurumen-praktika posibleak sustatu beharko ditu.

Bereziki, batzordea eratu beharko litzateke urtegiaren inguruneke laginketa-puntu batzuetan –baita OIO ESC 1 puntuan ere– oraindik dirauten HCH plagizidaren hondar-kutsaduraren datuak aztertzeko, eta zer ekintza-neurri hartu behar diren baloratu beharko du.

- Era berean, aurreko ebazpen batzuetan adierazi dugun bezala, herri-administrazioek parte hartzeko mekanismoak eta informazio-sistemak errazten jarraitu beharko dute, kontsumorako uren kalitatearen kudeaketarekin lotuta. Egin diren foro eta bilera horiek administrazio-praktika on bat dira, eskura dagoen informazio guztira sarbide etengabea izaten jarraitzeko, eta alderdien



ararteko



URTE AÑOS

artean komunikazio-bideak eta elkarrekiko konfiantzazkoak ezartzeko. Era berean, gai teknikoetan, administrazioak ahalegin bat egin behar du, jendeak informazioa ulertzea errazteko. Informazioak argia, erraza eta ulerterraz aizan behar du. Halaber, administrazioak beharrezko baliabide teknikoak jarri behar ditu, parte-hartze erreala eta eraginkorra errazteko.

